

Aretxagazeta



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Euskararen erabileraren
neurketa /11

MAIATZAREN 25A
Talde politikoetako
elkarrizketa /12-13

LEINTZ GATZAGA
Emakumeek bidaia
Asturiasera /14

JAI GIROA NAGUSI ASTE BUKAERAN

Euskararen eguna eta Otala-Zelaiako erromeria



Arritxu Oliden.
Aretxabaletako Alkatetzarako Hautagaia.


Atxabalta eitten.



Bozkatu eraginkor.



FOTOSINTESIS



argazki laritza

Karreteak

Kamerak


Albumak

Eta gauza gehiago

Herriko plaza 5 Aretxabaleta
Argazki denda BERRIA

Errebelatua 5 euro


ATREBENTZIA EZ PADA / Hauteskunde kanpaigne hasi da. Egitten dutzezu kasurik propagandiari?




NAGORE ESCOBAR
Langillie




MARI JOSE DOMINGOS
Langillie



ALBERTO MARTÍNEZ
Langillie



ANA RAMOS
Langillie



JOSE SEJO
Jubilaue



LUIS MARI SANTAMARIA
Langillie

Ez. Neuretako politikak berak be ez dauko interesik. Rezikletako ontzixen buketan daue horreik propagandok. Kartel eta pintada larregi jarten daue herrixen ziher sasoi honetan.

Ez. Gaiñera, propagandie egitteko gastetan dan diru hori alperrikakue dala uste dot. Neuk ez dutzet kasurik egitten; hortan, danak sobran dauz. Neu, behintzet, ez naue konbenziduko.

Ez, ez dutzet kasurik egitten. Nik uste dot jentiek oingoz badakixela botue zeinei emun, eta ez dau propaganda biherrik. Larregi gastetan daue politikuek progandie egitten.

Bai, baiñe kasu haundirik egin barik leiduten dittut. Dirue gastetan daue propagandie egitten; hortan, neure ustez, zerbaittara ko balixo biherko leuke. Informaziñue emuten daue.

Nik neuk ideak garbi dauket, eta ez dutzet propaganda horrei kasu haundirik egitten. Politikuek propaganda gutxiau eta gauza gehixau egin biherko leuki herrixan alde.

Ez. Irakurri be ez dittut egitten eta zuzenien faten die rezikletako zakarrontzire. Jentiek argi dauko botue zeinei emun. Gaiñera, politikuek larregi gastetan daue propagandie egitten.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 17
FRAILE, J. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99
DOMEKA, 18
FRAILE, J. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99

OHARRAK

JABIER ARRILLAGAREN KONTZERTUA

Gaur egubakoitza Jabier Arrillagak kontzertua eskainiko du 20:00etan udaletxe zaharrean.

GERRAN FUSILATUTAKOEN GAINEKO ERAKUSKETA

Martitzenean, hilak 20, hasi eta astebetetz Espainiako gerran fusilatutako en inguruko argazki erakusketa egongo da udaletxe zaharreko 2. solairuan 18:30etik 20:00etara.

HERRITARREN BERBAK / Resu Abasolo



Pocholo

Ahoskeraz berdinak izan arren "potxolo" eta "Pocholo", badago desberdintasunik bien artean.

Potxolo: lodikotea, mozko-tea, gizentxo, polita, gehiengotan deitzaile gisa maitasun nabarduraz erabili ohi dena. Ene potxolo, egizu lo.

Azken egunotan, ordea, "Pocholo" nabarmendu du

Espainiako telebistako T5 kateak eta esanahian ez du antzekotasunik azaldutako "potxolo"-arenarekin.

Kontuan hartzen badugu aurreko bizi-espereztien arabera ulertzen ditugula gauza berriak, zeharo lotsarazten nau "Pocholo" izenak gure potxolori gehitzen dionak: alde batetik, "Pocholo"-k -Hotel Glam-eko lehia-


kidea- gure begien aurrean astean zehar okupatzen duen denborak transmititzen duen mezua: egoten ez dakien pertsona, nahi duena egiten duena, inor aintzakotzat hartzen ez duena, hitz egiten ez dakiena, hitzekin esateko gai ez dena astakeriak eginez osatzen duena, harremanak zaintzen ez dituen... ospea lortzeko.

Bestalde, programaren arduradunak bisualki ikusten denari gaineratzen dizkion komentarioak ikus-entzuleok hobeto uler ditzagun "ennergumeno" honen jarrera, gidoi guztia pikutara joan arren. Esperientziak dio ikusleok

esaten denarekin baino gehiago gogoratzen garela ikusten dugunarekin, eta telebista familien ordutegi, jarduera eta ohituren diktadore bihurtu denez, zer pentsa ematen didate "Pocholo"-ren ondorioak beregana ditzaketen "potxolo" guztiak. "Aman-dre elektronikoak", telebista pasiboki ikusteak ez du laguntzen, ordea, irudimena pizten, ez eta "Pocholo" kritikoki ikusten. Nola ikasi errealtatea bereizten, "Pocholo"-k egiten duena "guai dago" esaten badute txikienek? Familien, telebistaren eta eskolaren arteko lankidetzak da potxoloaren hezitzeo oinarria.

"Familiaren, telebistaren eta eskolaren arteko lankidetzak da, 'potxoloak' hezitzea"

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrirra eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

EGVNEKO MENYAK
OTARTEKORK ETA
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETAKO

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETAKO

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale



ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

JAIK/Euskararen Eguna eta Ojala-Zelaiko erromeria izango ditugu aste bukaeran

Ospakizunez betetako aste bukaera aurrez aurre

MIRARI ALTUBE

Udaberriak jaiak dakartza gure herrietara. Aretxabaletan Euskararen Eguna ospatuko dugu bihar, zapatua, eta Ojala-Zelaiko erromeria domekan. Egitarau oparoak antolatu dituzte Loramendi EEK eta Udaleko Kultura Sailak bi egun horietarako.

Eguraldi ona eskatu beharko du gu zapatu eta domekarako, ospakizunez beteta datoz-eta. Bihar, zapatua, Euskararen Eguna eta domekan Ojala-Zelaiko erromeria, aitzakia ederrak biak ondo pasatzeko.

PEÑAGARIKANO ETA IRAZU

Egitarau oparoa antolatu du Loramendi EEK biharko: 11:30ean trikitilariak hasiera emango diote jaiari; 13:00etan Angel Mari Peñagarikanok eta Jesus Mari Irazuk bertso saioa egingo dute Mitarte kalean. Bertsoak, gainera, gazta janez eta sagardoa edanez entzun ahal izango ditugu; bazkal ordurako babarrunak egongo dira, eta gero txiste kontalariak girotuko du bazkalostea; 17:00etan koadrilen arteko jokoak egongo dira; 18:00etan umeendako dantzaldia egongo da; 21:30etan Iratxo taldeak jarriko ditu dantzan ume eta nagusiak.

PAELLA TXAPELKETA

Bestalde, umeendako apropos egindako egitaraua antolatu du Kultura Sailak Ojala-Zelai egu-



Azken urteotan moduan, babarrunak jango dituzte zapatuan plazan batzen direnek.

nerako: 12:00etan hasita animaliakin jokoak egingo dituzte; 13:00etan Paella Txapelketa egongo da. Antolatzaileek oinarritzko osagaiak banatuko dizkiete parte-hartzaileei, eta gainerakoa eurek jarri beharko dute; 14:00etan herri bazkaria egongo da, eta

paellaz gaintekoak norberak eron beharko ditu; 15:30ean jolasak izango dituzte umeek eta 16:00etan dantzaldia Txinparta taldearekin; 20:00etan Mitarte kalean jarraituko emanaldiak.

Eguraldi txarra egiten badu, Iturrigorri egingo da jai.

LABUR

Areto futbol txapelketa antolatu dute Aretxa plataformako kideek hauteskunde bezperarako

Autodeterminazioaren aldeko golak lelopean areto futbol txapelketa antolatu dute Aretxa plataformako zenbait kidek eta herriko tabernari batzuek hilaren 24an eta 25ean. Kirolaren bitartez autodeterminazioaren aldeko inplikazioa lortu gura dute; hortaz, neskei dei berezia egiten diete parte har dezaten. Adina ere ez da traba izango txapelketa jokatzeko. Hilaren 21a baino lehen eman behar da izena Arlutz tabernan, 30 euro ordainduta. Txapelketa zapatuan izango da eta hauteskunde-domekan finala.

Astehenean egingo du udalbatzarrak agintaldi honetako azken osoko bilkura

Astehenean, maiatzak 19, egingo du udalbatzarrak agintaldi honetako azken osoko bilkura. Denera hamabi gai aztertu beharko dituzte. Batetik lanak esleitu dituzte: bai Udalaren lokalak garbitzeko, bai herriko lorategiak zaintzeko, bai Lausitta plaza egokitzeko. Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena egiteko asmoa azalduko du gizarte laguntzaileak. Herriko nagusiei laguntzeko Sendia programa du helburu hitzarmenak. Horiez gain, Udalbiltzaren gaineko mozio bat aurkeztuko dute.

Pedro Guenetxea txirrindulari lasterketa izango dute domekan kadeteek

Aretxabaleta Kirol Elkarteko Txirrindularitza Sailak Pedro Guenetxea Memoriala antolatu du lehenengo eta bigarren mailako kadeteendako. Txirrindulari lasterketa domekan izango da. Proba 16:30ean hasiko da, Durana kalean, eta 18:00ak inguruan bukatuko da, Aozaratza auzoko Ojala-Zelai zelaiaren alboan. Txirrindulari gazteok Aretxabaletatik Epeleraino bi aldiz joan beharko dute Ojala-Zelaira igo aurretik.

Martitzenean zabalduko dute, udaletxeko ganbaran, fusilatuen gaineko erakusketa

Martitzenean, hilaren 20an, zabalduko dute Espainiako gerran hildakoen gainean fusilatutakoen senide eta lagun baten batzordeak antolatu duen erakusketa. *Hazia erein zenuteno* izeneko erakusketan Espainiako gerrako 100 argazki inguru eta hainbat leku-kotasun batu dituzte. Udaletxe zaharreko lehenengo solairuan egongo da erakusketa, astebetetz, 18:30etik 20:00etara. Erakusketa horrek ibarreko udalen laguntza jaso du.

Lasai

**Mirian Manteca
masajista**

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
 - Kraneala
 - Estrukturala
 - Funtzionala
- Lotura muskularrak

AMETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tel: 943 79 01 29
ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

IOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08


LEIBAR arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta





Hau?



Kepa Atxabaltara!!!

...edo hau?

Herritarrona da hitza!!!

Aukeratu Aretxa!

KARATEA

Lehenengo 'Kyokushinkai' karate txapelketa egingo dute bihar

Goizean gaztetxoek jokatu dute txapelketa eta arratsaldean nagusiak ibiliko dira

AMAGOIA LASAGABASTER

Aretxabaletako Karate Eskolak lehenengo Kyokushinkai karate txapelketa antolatu du. Bihar, zapatua, izango da. Hala, goizean gaztetxoak ibiliko dira nor baino nor gehiago eta arratsaldean nagusien txanda izango da. Kirol etxean jokatu da txapelketa.

Bigarren aldia da Aretxabaletako Karate Eskolak horrelako txapelketa bat antolatzen duena. Izan ere, joan den urtean *Kyokushinkai* erako lehiaketa bat egin zuten. Orduan, baina, Aretxabaletako karate jokalariek bakarrik hartu zuten parte eta txapelketa baino gehiago erakustaldia izan zen. Aurten, berriz, Arrasateko Saioa eta Bergarako Giartzu karate elkarteak gonbidatu dituzte, eta horiekin lankidetzan antolatu dute lehenengo *Kyokushinkai* karate txapelketa.



ARTXIBOA

Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako hainbat karatekak hartuko dute parte.

'KYOKUSHINKAI'

Karatearen barruan hainbat estilo daude eta horietako bat da *Kyokushinkai* delakoa. Karatea egiteko modu horren sortzailea Masutasu maisua izan zen. *Kyokushinkai* estiloan *kata* eta *kumite* modalitateak daude. Izan ere, horiek biak karateko teknikak dira.

Gipuzkoan Aretxabaletako, Bergarako eta Arrasateko karate elkarteek egiten dute *Kyokushinkai*. Horregatik, txapelketan

ere horiek bakarrik hartuko dute parte. Hain zuzen ere, 120 kirolari ibiliko dira nor baino nor gehiago bihar kirol etxean. Hala ere, etorkizunean Arabako eta Bizkaiko karate elkarteek ere txapelketan parte hartzeko gonbita egitea pentsatu dute.

Parte-hartzaileen artean, Erik Martin Espainiako Karate Txapelketan bi urtez hirugarren izan den kirolaria eta Ivan Galán 2003an Euskadiko eta Gipuzkoa-

ko txapelkun izan den gaztea egongo dira. Biak Arrasateko Saioa elkartetik etorriko dira.

GOIZ ETA ARRATSALDE

Txapelketak egun osoa iraungo du. Goizean gaztetxoak ibiliko dira lehian, 6tik 13 urte artekoak, hain zuzen ere. Eta arratsaldean nagusien txanda izango da, eta, hala, 13 urtetik gorako karate jokalariek izango dira kirol etxean protagonista.

PILOTA

Herri Arteko Pilota Txapelketa hasiko dute gaur arratsaldean Aretxabaletako pilotariek

Bergarako pilota taldearen aurka jokatu dute Aretxabaletarrek Herri Arteko Pilota Txapelketako lehenengo jardunaldia gaur, hilak 16. Urtero moduan, herriko hiru bikote ibiliko dira lehian: nagusien ordezkari Errasti anaiak izango dira; gazteen mailan, Andoni Altube eta Haritz Kortabarria ibiliko dira; eta, azkenik, kadeteen mailan, Jon Altube pilotari gaztetxoak hartuko du parte oraindik zehazteko dagoen bikotekidearekin.

Bestalde, Debarroko Pilota Txapelketa aurrera jarraitzen du. Azken jardunaldian Bergararen aurka jokatu zuten eta hurrengo Arrasateren aurkakoa izango da. Nagusiek eta gazteek aukera dute txapelketako finalurrekoak jokatzeko.

FUTBOLA

Preferenteko UDA taldeak omenaldia egingo dio infantil mailako talde txapeldunari

Gipuzkoako txapeldun izan diren UDAko infantil mailako taldeari ohorezko pasilloa eginez hasiko du preferente mailako taldeak oraingo domekako liga jardunaldia. Ekitaldi horrekin, UDA elkarteak infantil taldeko jokalariek guztiei aurtun ligan egindako lan paregabea eskertu gura die.

Bittor Muxikaren taldeak Elgoibarren aurka jokatu du oraingo domekan, hilaren 18an. Preferenteko UDA taldea postu erosoan dago ligako sailkapenean. Hain zuzen ere, zazpigarren dago UDA, 55 punturekin.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Elgoibar

Preferentea.

Domeka. 17:00. Ibarra.

UDA-Beti Ona

Big. mail. erregio. Igoera fasea.

Zapatua. 15:30. Ibarra.

PILOTA

Herri Arteko Txapelketa

Aretxab.-Bergara

Hiru partidu: kadeteak, gazteak eta nagusiak.

Egubakoitza. 19:00. Iturri-

gorri pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Pasajes 0 UDA 0

Preferentea.

Amaika Bat 3 - UDA 0

Big. mail. erregio. Igoera fasea.

UDA 3 - Urola 1

Gazteen Ohorezko Liga.

UDA/Almen 11 Intxurre 0

Big. mail. gazteak. Igoera fasea.

Ilintxa 3 UDA 1

Lehenengo mailako kadeteak.

Martutene 5 UDA 1

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Debarroko Txapelketa

Eskoriatza 13 Aretxab. 22

Gazteak.

Eskoriatza 22 Aretxab. 10

Nagusiak.



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Jon Díaz

Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

PIENSO SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

RKU


URKULU, S.L.
Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Lubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE



*Matikua
jatetsxea*

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



ORAIN...
**SOLARIUM
BERTIKALA**

Kixkur
ILEAPAINDEGIA

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

Aretxabaletatik Euskal Herria

Behetik gora, ezkerretik eta bakean




XABIER SARASUA

33 urte • Magisteritzan diplomatua.
Soin Jardueretan Lizentziatua.
Irakaslea eta euskalgintzan jardundakoa.
Intsumisioa eta Aretx. Antimilitaristako sortzailea.
Autodeterminazio Biltzarrak (ABK)ko kidea.
Desobediencialariak bilguneko sortzailea.
Hiruatz-eko kidea.




FELIS BELTRAN DE HEREDIA

41 urte • Aurre-inprimatze teknikaria.
Eguzkigraf, Koop. Elk.
Elkarriko kidea.
Sta. Rita eta Pausokako guraso
elkarteko kidea.



JOXANJEL ANTIXIA

52 urte • Kalitate teknikaria, Fagor Ederlan.
Euskal Presoak Euskal Herrira
Plataformako kidea.



IÑAKI SIERRA

53 urte • Fisikan Lizentziatua.
Laborategiko arduraduna, Fagor Elektronika.
Dorletako Ama Txirindulari
eskolako idazkaria.



IKER IGLESIAS

25 urte • Arte Ederretako ikaslea.
Muntatzailea, Fagor Industrial.
Biluma musika taldeko kidea.



JON ANDER LOIDI "BILI"

34 urte • Magisteritzan diplomatua
Fagor Ederlaneko langilea.
Beinke eta Murruxiko Elkarleen sortzailea.
Intsumisioa. Euskalgintzan jardundakoa.



ANJEL ZUBILLAGA

38 urte • Aseguru saltzailea, Mapfre.
Gerrako Fusilatuen senitartekoen
eta lagun batzordeko kidea.



PEDRO AZKARGORTA

54 urte •
Aurreprestakuntzako makinaria, Copreci.
Korrikalaria. Elkarriko kidea.



AMAIA ANTERO

30 urte • Euskal Filologian lizentziatua.
Masterra Kultur Baliabideen kudeaketan.
Euskalgintzan jardundakoa.



JUANJO PEREZ

36 urte • Magisteritzan diplomatua
Itzultzailea
Elkarriko kidea eta Elkarriko
Tailer Nazionalako kide-ohia



LUZMA ROJAS

41 urte • Kolonbiarra eta euskalduna.
Harreman Bidezko Merkataritzako
dendako arduraduna.



PEIO ETXEBARRIA

53 urte •
Kooperatibako langilea,
Fagor Elektronika.



JOSU SARASUA

33 urte • Injineru Teknikoa.
Irakaslea, Arizmendi Ikastolan.
Loramendi E.E.ko lehendakari ohia.




ARACELI HERRAN

38 urte • Idazkaria Mapfre.
Futbolzalea.



ANGEL IRURE

35 urte • Elektronika teknikoa
Fagor Automation.
Ortuko lanetan zaletua.
Atzerriko hizkuntzen ikaslea.



MARTXI PEREZ

38 urte • Magisteritzan diplomatua.
Irakaslea, Arizmendi ikastolan.

Bada konpontzeko garaia

Lizarra-Garazi da bidea

Elkarrizketa, Suetena, Autodeterminazioa

**zure
botoa**

ARETXABALETAKO

ARALAR

M25 / ARETXABALETAKO ETORKIZUNA AZTERGAI

Aretxabaletarren onginahia dute ardatz talde guztiek - Askatasun



ARETXA

Iñaki Iturri

ARETXABALETAKO / 45 URTE / KOOPERATIBAKO LANGILEA

Aretxa plataformari ez diote utziko hauteskundeetan parte hartzen. Hala ere, parte hartzera animatzen dituzte herritarrak, eta euren aldeko apustua egiten dutenei herriaren alde lan eginez erantzungo dietela argi utzi gura dute. Gardentasuna eskatzen die gainerako alderdiei, eta egoera konpontzeko alternatibak.

Zelako taldea osatu duzue?

Jasotako erasoan aurrean eta hauteskundeetara aurkezteko bitartekoak aztertu ostean, herri plataforma bezala aurkezteko aukera bakarra abian jarri genuen. Hiru baldintza orokor eta zehatz ardatz hartuta (ezkerra, autodeterminazioa, baldintza demokratikoak) aretxabaletarrena zuzendu ginen. Herri batzar ugari eta zabalak eginda eratu zen herri plataforma anitza, abertzalea, herritarra, haien eskubideak defendatu eta herriaren alde lan egingo duena.

Zelan ordezkatuko dituzue herritarrak?

Legez kanporatzea espainiar gobernu faxistaren beste estrategia bat da, ezin da esan euskaldunek legez kanporatu gaituztenik. Gu, herriak aukeratutako herritarrak garen neurrian, orain arte moduan jarraituko dugu lanean, Udaletik, Diputaziotik eta Euskal Herriko erakunde nazional bakarra den Udalbiltzatik kanpo utzi arren. Herria herrigintzan lan eginda ere altxatzen da (ikastolak,

AEK, Egunkaria, Egunduro, Gara, herri aldizkariak...). Nork kendu nahi digu aretxabaletarrak ordezkatzeko eskubidea? Nork kendu nahi digu nork bere ordezkaria aukeratzeko duen eskubidea? Zergatik?

Giro nahasi honetan alderdiei zer eskatzen diezue?

Alderdiei eskatzen diegu gutxienez gardentasun apur bat egoera aztertzeko orduan, eta gainditzeko alternatibak mahai ganean argitzea. Espainiaren erabakiak onartuko dituzte?

Lankidetzarako gertu zaudete?

Nahi dutenean eta non nahi.

Zein emaitza espero duzue?

Boto *nulua* dela esatea Espainiako gobernu faxistaren strategiaren aurrean makurtzea da. 80.000 herritarren ziletasuna genuen hauteskundeetan ordezkatuak izateko; hortaz, boto *aktiboa* izango da beste edozein alderdirena bezain baliagarria. Emaitzak egoeraren eta baldintza demokratiko txarraren arabera izango direlakoan gaude.

“Lanean jarraituko dugu, Udaletik, Diputaziotik eta Udalbiltzatik kanpo utzi arren”



EAJ/EA

Arrixu Olliden

ARETXABALETAKO / 36 URTE / KOMERTZIALA

Arrixu lehenengo aldiz aurkeztuko da alkategai. Orain 10 urte afiliatu zen EAJn. Soziologia ikasketak egin zituen, eta komertziala da lanbidez. Bi neska-mutikoren ama da. Gaztetasuna eta esperientzia uztartu dituzte zerrenda osatzerakoan, eta, Arrixuk esan duenez, ilusio handiz egingo dio aurre erronkari.

Zelako taldea osatu du EAJ/EA koalizioak udal hauteskunde hauetarako?

Egoera dagoen moduan egonda, konprometitzeko gertu dagoen jendea aurkitzeak eta, horrenbestez, zerrenda osotzeak lan handia eman du. Lan horrek, ordea, fruitua eman du: alde batetik, jende berria eta gaztea sartu gara; eta, bestalde, esperientziadunak ere badaude taldean. Horrez gainera, guztiok erronka hau ilusio handiz jaso dugu. Horrek guztiak zerrenda biribila eta lantalde gogotsua sortzera eraman gaitu.

Dagoen giroa ikusita, zelako emaitzak lortzea espero duzue?

Gure helburua hauteskunde hauetan alkatetza berreskuratzea da. Hemendik aurrera, batez ere gaur egungo egoera nahasia dela eta, iragarpenak egitea oso zaila da.

Aretxa plataformaren legez kanporatzearen aurrean zein izango da zuen jarrera?

EAJ/EA koalizioak finkatutako bidea jarraituko dugu.

Lortutako ordezkariek lortuta ere, Udalean lankidetzarako gertu zaudete?

Gure nahia da Aretxabaletaren alde lan egiteko gertu dagoen guztiarekin partaidetza bul-tzatzea.

Aurreko udal hauteskundeetatik hona ezker abertzalean gertatu den zatiketa zuen onurarako izango da?

Arrozkoia da botoak banatu egingo direla pentsatzea. Indar politiko berri baten sorrerak eta beste baten legez kanporatzeak oso egoera iluna sorrarazi dute, eta momentu honetan ezin da jakin zeinen onurarako izango den. Guk hautesleen konfiantza espero dugu, bai gure lantaldearengan baita gure proiektuan ere.

Zein da zuen leloa edo ardatza udal hauteskunde hauetan Aretxabaletarako?

Hauteskunde hauetarako gure leloa da *Atxabalta eitten*, eta esaldi horrek dioten moduan, pertsona, talde eta elkarre guztien inplikazioaz Aretxabaleta hobe egingo da gure proiektuaren ardatza.

“Gure helburua hauteskunde hauetan alkatetza berreskuratzea da”



PSE-EE

Mari Karmen Atxutegi

ZORNOTZA / 48 URTE / IDAZKARIA

1989an afiliatu zen Euskadiko Partidu Sozialistan Mari Karmen Atxutegi, eta orain lehenengo aldiz aurkeztuko da udal hauteskundeetara. UGT sindikatuko ordezkari izandakoa da. Euskaraz daki, eta aretxabaletarra ez izan arren, argi utzi gura du dagokion moduan lan egingo duela herri honen alde.

Zelako zerrenda osatu du PSE-EE taldeak udal hauteskunde hauetarako?

MVLNren totalitarismoak eragindako beldurrezko strategiari eta heriotza mehatxuari aurre egiteko gauza izan diren Euskadiko sozialistekin osatu dugu zerrenda, Aretxabaletako boto-emaitza sozialistek Udalean eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari izan dezaten.

Aurreko agintaldian ordezkari bat izan duzue. Oraingoan zelako emaitzak lortzea espero duzue?

Gure adostasunezko politikari eta aniztasunaren eta ongizatearen aldeko defentsari erantzun positiboa emango diotelakoan gaude.

Bukatzean dagoen agintaldian Udalean ez duzue gehiegi parte hartu. Zein eskaera egingo zenieke gainerako alderdiei?

Alderdi demokratikoei udal gestioa konpontzeko elkarrizketa eta hitzarmenak eskatzen dizkiegu; batez ere Aralarri eta Ezker Batuari, ongizateari, etxebizitzari, ingurumenari...

dagokienez ezkerreko politika aurrera eroteko.

Ez zara aretxabaletarra. Kanpoan bizi izatea ez da traba herri honen alde lan egiteko?

Segurtasuna dela eta herrian ez bizi izatea larria da, Euskadiko herri txikietan jauntxokeria terrorista dagoela indarrean adierazten duelako. Horrek ez du esan gura mehatxupean bizi ez diren zinegotziek baino ordubete gutxiago lan egingo dugunik herri honen alde.

Aretxa plataformaren legez kanporatzearen aurrean zein izango da zuen jarrera?

Epailtzako erabakiek diotena errespetatzen dugu legez kanporatzeari dagokionez. Ideia demokratiko guztiak bozkatzeko trabarik ez dago, independentzia eskaerak barne.

Zein da hauteskundeetarako zuen lelo edo ardatz nagusia?

Leloa ez da berba; guk politikak ditugu, ez leloak. Alderdiaren ardatza guztiendako gobernatzea da, eta babes soziala eta adostasuna aurrera eroteko bideak.

“Ideia demokratiko guztiak bozkatzeko trabarik ez dago, independentzia eskaerak barne”

dela-eta, kezkatuta azaldu dira herriko talde politiko guztiak



PP

Silvia Camporro

GASTEIZ / 24 URTE / ADMINISTRATZAILEA

Lehen aldiz aurkeztuko da udal hauteskundeetara Gasteizen jaiotako gaztea. Askatasunik ezak arduratzen du Silvia, eta horren ondorioz aretxabaletarrekin zerrenda ezin izan dutela osatu dio. Bestalde, errespetua eskatzen die gainerako taldeei, batez ere abertzaleei, eta ez dezatela gure herrian atzeritartzat hartu.

Zelako zerrenda osatu du PP taldeak Aretxabaletarako?

Gazte bi jarri ditu PPK Aretxabaletako zerrendako lehenengo postuetan. Herriaren alde lan egiteko eta guztiondako askatasuna lortzeko ahalegin guztiak egingo dituzte.

Orain zinegotzi bat duzue. Zelako emaitzak espero dituzue?

Bukatzeaz dagoen agintaldian zinegotzi bat lortzea oso aurrerapauso handia izan zen guretako. Hauteskunder hazteko gero eta emaitza hobekiago lortu ditu PPK Aretxabaletan; hortaz, gure helburua finkatu eta, ahal bada, ordezkariak handitzea da.

Ez zara aretxabale-tarra. Kanpoan bizi izatea ez da traba herri honen alde lan egiteko?

Euskadin jasaten gabiltzan askatasun faltak herriko bertako hautagaiak ez izatea dakar. Baina, era berean, bada-kigu botoa eta babesa emango diguten herri-tarrak daudela, eta kan-poko hautagaietara jo behar izan dugu. Ez da oztopoa, askatasun faltaren ondorioa baizik.

Aurreko agintaldian ez zenuten gehiegi parte hartu udal gestioan. Ordezkaritza lortuz gero zer eskatuko zenieke gainerako alderdiei?

Aukera guztiak errespetatzea eskatuko nieke. Alderdi Popularrak ez du parte hartuko inongo gobernu batzordetan bazterketa egiten duten taldeekin. Abertzale ez direnak *alemaniarrek Mallorcan* moduan hartzen gaituztenekin ezin dugu proiekturik banatu.

Aretxa plataformaren legez kanporatzearen aurrean zein da zuen jarrera?

Epaitegietan erabaki duten legez kanporatzeak ETA talde armatua gure erakundeetatik kanpo utzi du beste behin. Demokraziaren eta askatasunaren aldekoa dela uste dugu.

Zein da hauteskunde hauetarako zuen ardatz nagusia?

Aniztasuna. Nork bere sentimenduak adierazteko aukera izan behar du, eta horretarako bideak ezarri behar ditugu, mehatxu, eraso eta xantxia barik.

“PPk ez du parte hartuko inongo gobernu batzordetan bazterketa egiten duten taldeekin”



IU-EB

Jaime Muxika

ARETXABALETA / 45 URTE / AROZTEGIKO NAGUSIA

Ezker Batuak ez du inoiz ordezkari izan Udalean, eta aurten horixe lortu gura du. Aretxabaletarrak dira nagusi aurkeztu duten zerrendan, eta Jaime bigarren aldiz aurkeztuko da alkatetzarako. Udala behar bezala gestionatzeko proposamen ugari dituzte, tartean, ongizateari eta ingurumenari dagozkienak.

Zelako taldea osatu du Ezker Batuak Aretxabaletarako?

Aretxabaletarrez osatutako taldea da, herriaren bertan edo inguruan lan egiten dugu eta herrian parte hartzen dugu. Gehienok seme-alabak ditugu eta euren etorkizunaz kezkatuta gaude hezkuntza dela, aisialdia dela...

Sekula ez duzue ordezkari izan. Oraingoan zelako emaitzak espero dituzue?

Udal ordezkariak lortzea da gure helburua. Horrela, beste taldeekin batera Aretxabaletaren alde egingo genuke lan.

Aretxa plataformaren legez kanporatzearen aurrean zein da zuen jarrera?

Ezker Batua legez kanporatzearen aurka dago, oinarrizko eskubideak urratzen dituelako eta herritarren askatasun-guneak mugatzen. Herritarren parte-hartzea, plataformak barne, bultzatzen dugu aurrekontuak egiteko orduan, nahiz eta gero osoko bilkuran onartu behar. Lege barruan ez dauden talde-

kin ez gaude ados, Udalen desagitea ekar lezakeelako eta gestora bitartez kudeatu beharra.

Udalean lankidetzarako gertu zaudete?

Ideien eta lanaren aldeko apustua egin gura dugu Udala behar bezala gestionatzeko, eta batez ere ongizatea eta ingurumena kontuan izanda. Ikuspegi horretatik, gainerako udal ordezkariekin berba egiteko gertu gaude.

Ezkerreko lau talde aurkeztuko zarete udal hauteskundeetara; hala ere, zatiketa da nagusi. Ezkerretik etorriko dira gure herriko konponbideak?

Bai, ezkerreko lau talde izango gara, baina aurkeztuko ditugun programak ezberdinduko gaituzte. Ezker Batua iritiz, herri honetan ezker eskua behar-beharrezkoa da arazo garrantzitsuenen irtenbidea aurkitzeko. Gure proposamenen artean honakoak daude: etxebizitzak, herritarren parte-hartzea, ingurumena, gazteria... Guztiak arrakastaz eroso ditzakegu aurrera; hainbat herri dira horren adibide.

“Ideien eta lanaren aldeko apustua egin gura dugu Udala behar bezala gestionatzeko”



ARALAR

Xabier Sarasua

ARETXABALETA / 33 URTE / IRAKASLEA

Lehenengo aldiz aurkeztuko da Aralar taldea hauteskundeetara, eta Xabier ere lehenengo aldiz da hautagai. Hala ere, hainbat taldetan parte hartutakoa da: Autodeterminazioaren Biltzarrak taldeko kide eta Desobediencia Bilgunea taldeko sortzaile. Hiruatz Hirugarren Munduko taldeko kide ere bada.

Zelako taldea osatu duzue?

Herriatik sortutako taldea da. Berria, gaztea eta askotarikoa. Herri-gintzako hainbat esparrutan lanean esperientzia handia duen jendea batu gara eta, batez ere, garai zail hauetan tinko aurrera egiteko gogotsu eta ilusioz beteta dagoena.

Zelako emaitzak lortzea espero duzue?

Ez gara handinahiak. Herritarrek ipintzen gaituzten lekutik lan egitea da gure bokazioa. Guk ez dugu nahi Batasuneko en botorik, ez eta ETA-ren estrategiarekin ados daudenen botorik. Ez goaz horiei botoak harrapatzea. Guk abertzale kritiko botoak gura ditugu. Gu abertzale kritikoak gara, kritikoak bai Batasunarekin eta bai EAJ/EArekin. Haize berria behar da, horretara goaz, eta argi berba egiten dugu.

Aretxa plataformaren legez kanporatzearen aurrean zein izango da zuen jarrera?

Legez kanporatzeak hainbat herritarren eskubideak larriki urratzen ditu, eta egoera

honek erantzun bateratuak eskatzen ditu alderdi aurrerakoi eta abertzaleon aldetik. Geure jarrerara argia da ildo horretan: herritarrek emandako botok kontatzeko bideak ipini behar dira, eta haiek erabakitakoa errespetatzeko akordioak bilatu.

Udal ordezkariak lortuz gero lankidetzarako gertu zaudete?

Geure sorreratik azpimarratu gura izan dugu hori. Udaletik eta herritarrekin batera herrigintza egitea bada geure lehentasuna, lan hori beste alderdiekin lankidetzan egin behar dugu, bereziki geure ikuspegi aurrerakoi eta ezkerrean bat egin dezaketenekin.

Zein da zuen leloa edo ardatza?

Leloa da *Aretxabaletatik Euskal Herria egin; behetik gora, ezkerretik eta bakean*. Bestetik, Udala denona da, eta horren haritik demokrazia parte-hartzailea da gure lanaren ardatz. Herritarrei eta herri elkartei eman gura diegu protagonismoa, herri biziago, askeago eta hobea denon artean eraikitzeko.

“Gu ez goaz botoak harrapatzea. Guk abertzale kritiko botoak gura ditugu”

**AZKENEAN, EGUNAK
LUZEAGOAK DIRA
APROBETXA EZAZU
2003KO UDABERRIA-UDA**



Bezeroarentzako Arreta-Telefonoa:


902 222 152

Badugu bezeroarentzako arreta-telefonoa, behar duzun guztian zutaz arduratu ahal izateko.
Telefonozko arretaren ordutegia: 9:00-13:00 eta 15:30-18:30.



Zatoz zure Sportland dendara, Garibai Etorbidea, 2-6 Arrasate

- Aitzorrotz elektronika
- Alboka gazte moda
- Ana's jantzi denda
- Angelines autozerbitzua
- Aretxabaleta iturgintza
- Asensio jantzi denda
- Begiondo optika
- Calderon Soledad autozerbitz.
- Errasti kioskoa
- Errekabarren fruta denda
- Etxabe harategia
- Farma bizi parafarmazia
- Gantxegi harategia
- Gemes edertze aretoa
- Gertu janari prestatuak
- Haurrak umeen moda
- Ibarra estankoa
- Iber loteria
- Imanol janari denda
- Iriarte umeen denda
- Irudi ileapaindegia
- Jauregi okindegia
- Jon harategia
- Josu harategia
- Kixkur ileapaindegia
- L-10 ileapaindegia
- La Brasileña akeita etxea
- Lasai masajeak
- Leibar arraindegia
- Leintz mertzeria
- Leniz liburudenda
- Mari Karmen oinetakoak
- Maritxu mertzeria
- Martin erlojudenda
- Miren Zuriñe bitxitegia
- Nerian loradenda
- Txilarra dietetika
- Xume oihal denda
- Zainduz osasuna/fitnessa
- Zare artegintza
- Zubia oinetakoak



Udaberriak 10 sari utziko ditu Aretxabaletan. Zozketa ekainaren 4an!



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 16a / 124. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Euskararen erabilera neurtu dute herrian

AMAGOIA LASAGABASTER

Udaleko Euskara Sailak hala eskatuta, euskararen kale erabileraren neurteta egin du SEI elkarteak. Ikerketa horren arabera, Eskoriatzako kaleetan euskararen erabilera, batez beste, %30 da. Datu guztiak astelehenean eman zituzten aditzera, prentsaurreko baten.

Eskoriatzako Udalak kalean euskararen erabilera neurtzeko egin dako ikerketaren arabera, hamar herritarretik hiruk bakarrik berba egiten dute euskaraz kalean. Datu hori eman zuen aditzera, hain zuzen ere, SEI elkarteak joan den astelehenean, hilaren 12an, egindako prentsaurrekoan.

Lehenengo aldia da Udalak euskararen erabilera neurtzeko azterketa egiten duena. Euskara Sailean interesgarria iruditu zitzaion datu horiek esku artean edukitzea, eta hori izan zen azterketa egiteko arrazoi nagusia. Hala ere, euskara teknikari Mari Carmen Arrietaren esanetan, orain argitaratutako datuek ez dute balio handirik izango. Haren iritziz, hemendik urte batzuetara, neurteta berriro ere egindakoa,



Neurteta zaharren, helduen, gazteen eta umeen artean egin du SEI elkarteak.

euskararen erabilerak herrian zein garapen izan duen ikustea izango da interesgarria.

Kalean egindako azterketaz gain, HUHEZI inguruan aparteko

neurteta egin dute SEIkoek, eta han euskararen erabilera oso handia dela ondorioztatu dute. Mari Carmenek esan digu horrek eragin positiboa duela herrian.

TXUTXUMUTXUA



Gaztetxoak kirolariek berbetan

Euskara, kirola eta aisialdia lelopean Kultura Astea egin dute Arizmendi Ikastolako ikasle eta irakasleek. Aitona-amonei eskainitako eguna, ipuin kontaketak, dantza, antzerkia eta kirola izan dituzte, besteak beste. Kirolari eskainitako tartean mendizaleekin, eskubaloiko eta Realeko eta Athleticeko futbol jokalariek solasaldiak izan dituzte ikasleek. Zapatuan amaierako festa erraldoia egingo dute Arrasaten. Argazkian, Jasone Díaz de Gereñu eskoriatzarra Almen guneko ikasleekin solasean.



Kontzejupe, herriaren alde lana egiteko gertu

Maiatzaren 7an egin zuen Kontzejupe herri plataformak hautagaien eta datozen lau urteotan jorratu gura duen zereginen aurkezpena: "Herritarrek ezagut dezaten etxez etxe banatuko dugu programa. Maiatzaren 25ean, berriz, gure hauteskunde-txartela izango dute herritarrek botoa eman ahal izateko. Botoen zenbaketa egingo dugu, eta herritarrek esandakoari erantzuna emango diogu, herriaren alde lanean jarraitu gura dugulako", esan digu alkategai Dorleta Kortazarrek. /A.G.

LABUR

Axtrokiren eskaintza datozen egunotarako

Axtroki Euskara Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunotarako: gaur, egubakoitza, Amaraun taldeak jazz kontzertua eskainiko du gaztetxean, 22:00etan. Bestalde, hilaren 19an, astelehenean, lanak direla-eta, Tortolis ludoteka itxita egongo dela jakinarazi digu. Astelehenean bertan Axtrokik antolatu duen nutrizioaren gaineko ikastaroa hasiko da. Maiatzaren 19tik 22ra egingo den ikastaroa Mireia Alberdik emango du.

M25 / ESKORIATZAKO ETORKIZUNA AZTERGAI

Indar politikoek herritarren parte hartzea bultzatu gura dute



KONTZEJUPE

Dorleta Kortazar

ESKORIATZA / 29 URTE / GAZTE BULEGOKO TEKNIKARIA

Dorleta Kortazar eskoriatarrak lehenengo aldiz aurkeztu du bere burua alkategairako. Amaitzear dagoen agintaldiak izan du esperientziarik Udalean, zinegotzi lanetan jardun du-eta EH alderdiarekin. Lanerako gertu dagoen talde anitza du atzetik Dorletak, eta maiatzaren 25etik aurrera ere lanean jarraituko dutela dio.

Zer da eta zeintzuek osatzen duzue Kontzejupe?

Talde anitza da, herrigintzan beste alor batzuetan lanean ari garen pertsonaz osatua, hainbat ingurutatik gatozenak. Gaztea da gure plataforma, eta gaztetasunak ematen duen lanerako gogoz dago osatua, udalgintzan esperientzia dugun pertsonekin tartekatua.

Legez kanporatzearekin zelan egingo duzue lan?

Argi dugu botoak zenbatu ostean dagozkigun beharrak eta postuak eskatuko ditugula, gure iritziz herriak erabaki duena delako garrantzitsuena. Gure programan proposatutakoa bete gura dugu eta horretarako egingo dugu lan. Gure ideiak defendatuko ditugu; udaletxe barruan ezin badugu, uzten ez digutelako, kanpotik jarraituko dugu lanean.

Giro nahasi honetan beste alderdiei zer eskatzen diezue?

Ez dezatela jokatu ezer gertatuko ez balitz bezala. Ez dira hauteskunde arruntak. Joan den hauteskundeetan eskoriatar gehienek babesa jaso duen taldea legez kan-

po dago eta lanean jarraitu nahi dugunoi ez digute aukerarik ematen. Egoera injustu honetan euren eskuetan dagoena egin dezatela eskatzen diegu. Bozketaren emaitzen gainean gauza sinplea eskatzen diegu: errespeta dezatela herriak erabakitzen duena.

Gainerako alderdiekin lankidetzarako gertu zaudete?

Beti egon gara lankidetzarako gertu. Elkarrekin egin dugu lan azken lau urteotan, eta ondo egin dugu lan, gainera, giro onean. Hemenetik aurrera ere horrela izan dadin gura genuke.

Zer lortu gura duzue?

Uste dugu azken lau urteotan oso lan txukuna egin dugula. Eta hori herrian nabari da. Herritarren %91k uste dute egin dugun lana ona edo oso ona izan dela. Horregatik uste dugu oraingon ere herriaren babesa jasoko dugula. Egun egoera gaitza den arren, saiatuko gara gure ahotsa entzunarazten. Kontzejuperi babesa eman gura dionak horretarako aukera izan dezala bermatu gura dugu.

“Kontzejuperi babesa eman gura dionak horretarako aukera izan dezala bermatu gura dugu”



EA/EAJ

Juan Karlos Bengoa

ESKORIATZA / 36 URTE / BASERRITARRA

Juan Karlos Bengoak ondo daki Udalean beste lagun batzuekin batera herriaren alde lan egitea zer den. Eta oraingon ere lanerako gogoz datorrela adierazi digu. Hura da EA/EAJ koalizioko zerrendaburu Eskoriatzan. Talde aurrerakoa eta orekatua aurkezten dutela uste du Juan Karlosek.

Zer-nolako taldea osatu du EA/EAJ koaliziokoak udal hauteskunde hauetarako?

Taldea aurrerakoa eta orekatua aurkezten dugula uste dugu. Zerrendaren lehenengo zortzi hautagaietatik lau emakumezkoak dira, adibidez. Bestalde, gaztetasuna eta esperientzia duten hautagaiak daude: batzuk zinegotzi izandakoak aurreko eta beste agintaldi batzuetan; eta beste batzuk, berriz, herrian izan diren eta oraindik dauden hainbat elkartetan dabilzanak dira. Herria ondo ezagutzen duten hautagaiak ditugu.

Zein emaitza lortzea espero duzue?

Aurreko agintaldian baino emaitza hobekia espero dugu; horretarako, alkatez lortzeko asmoarekin bultzaturiko taldea osatu dugu. Azkeneko urte hauetan hauteskunde guztiak izan dira nahasi samarrak, baina gure koalizioak egin duen lanaren berri badute eskoriatzarrek. Hortaz, eurek hauteskunde egunean erabakitakoa onartuko dugu.

Lankidetzarako ger-

tu zaudete?

Aurreko agintaldian alkatez galdu arren, oraingon ere beste alderdiekin etengabeko lankidetzan jardun dugu. EA/EAJko zinegotziok eraman ditugun komisiotan buru-belarri ibili gara lanean, eta Eskoriatzako beharrei lehentasuna eman diegu. Agintaldi honetan ere lankidetzarako eta adostasuna lortzeko ahalegina egingo dugu.

Ezker abertzalearen zatiketa zuen onurarako izango da?

Orokorrean abertzaleon zatiketa da txarrena. Hori horrela izan ez dadin ahalegina egin behar genuke. Eskoriatzan ez da aurkezten Aralar larko aurkezten den ibarreko herrietan ez dakigu zer erantzun izango duen. Eskoriatzako EA/EAJ koalizioa ez da pentsatzen ari zatiketa dela eta zenbat boto etor daitezkeen. Guk gure programa aurkezten dugu eta aurreko urteotan eginiko lanarekin jarraitzeko aukera da eskaintzen duguna. Orain eskoriatzarrek eurek hartu behar dute erabakia.

“Lankidetzarako eta adostasuna lortzeko ahalegina egingo dugu oraingon ere”



PSE-EE

Jose Ignacio Pierrugues

ESKORIATZA / 46 URTE / LEGEBILTZARREKO LANGILEA

Gasteizen egiten du lan, baina ondo ezagutzen du Eskoriatza. Badaki, gainera, Udalean lan egitea zer den, azken hiru agintaldietan Aretxabaletako zinegotzi izan da-eta. Bestalde, Euskadiko Alderdi Sozialista barruan hainbat ardura izan ditu, eta momentu honetan alderdi horren Ingurumen Saileko koordinatzaile da.

Zelako zerrenda osatu duzue Eskoriatzarako?

Euskal sozialistok oso egoera larrian egin behar diegu aurre hauteskundeak. Izan ere, alde handia dago abertzaleen eta terrorismoak eraso egin dien talde konstituzionalisten artean. Izan ditugun zailtasunen lekuko da Eskoriatzan aurkeztu dugun zerrenda.

Orain zinegotzi bat duzue. Zein emaitza espero dituzue?

Gaurko egoera politikoa eta orain dela lau urtekoa guztiz bestelakoak dira. Hortaz, emaitzak ere ezberdinak izango dira. Zuhurrak izan gura dugu eta herritarrek esan dezatela zenbat zinegotzi izan behar dituen alderdi bakoitzak.

Eskoriatzan bertan ez bizi izatea ez da oztopo herriaren alde lan egiteko?

Ez. Herri honen alde lan egiteko benetako oztopoak askatasun eta segurtasun falta dira, eta horrek beldurra sortzen du hautagai sozialista izan daitezkeen eskoriatzarren artean. Herri txikietan, gainera, jazarpena handiagoa da, eta horren erantzulea ETA

da. Heriotza-zigorra da gure herriaren alde hobeto lan egiten uzten ez diguna.

Udal ordezkari lortuz gero, zer eskatuko zenieke gainerako alderdiei?

Eztabaidaren, adostasunaren eta ulermenaren sinbolo egitea Eskoriatza. Udaletik aniztasunean eta demokrazian elkar bizitzea bermatu beharko litzateke. Askatasunaren, herritarren eskubideen eta eskoriatzarren ongizatearen alde egin dezagun lan.

Kontzejupe plataformaren legez kanporatzea dela-eta zein da zuen jarrera?


Legea, epaitegiko erabakiak eta demokraziaren arauak errespetatzea.

Zein da hauteskundeetarako ardatza?

Udala demokrazia-eskola izan dadin lan egin gura dugu. Hurreko politika egin gura dugu, eskoriatzarren beharrak, nahiak eta interesak eztabaida politikoaren ardatz izanda. Maiatzaren 25etik aurrera Eskoriatzan aldaketa gertatzea gura dugu.

“Eztabaidaren, adostasunaren eta ulermenaren sinbolo egin gura dugu Eskoriatza”

izun egoerak kezkatzen ditu herriko talde politiko guztiak



PP

Rafael Jaime

GASTEIZ / 54 URTE / ENPRESABURUA

Enpresaburu den arabar honek Eskoriatza eta Eskoriatzako errealitatea hurretik ezagutzen ez duen arren, ideiak argi dituela eta lanerako gertu datorrela esan digu, eta ordezkari lortzen badute aire fresko berria ekarriko diola Udalaren jarduerari. Herriar guztiendako askatasuna eta tolerantzia ditu helmuga.

Inoiz ez da zure alderdia Eskoriatzan aurkeztu. Lan egiteko ilusioz zatoz?

Gure helburua herriaren eta herritarren alde lan egitea da. Ildo horretan, PP alderdiak ikuspuntu berria eman dio Eskoriatzako herriari; beste alderdi guztien osagarri izan daitekeela uste dugu, gainera. Azken baten, herria aurrera bultzatuko duten proiektuak bultzatu behar ditugu guztiok lan-kidetzan.

Udal hauteskundeetan herriaren errealitatea ezagutzea ez da, zure iritziz, beharrezkoa?

Garrantzitsuena ideiak argi eta garbi izatea da; hau da, zer egin gura duzun eta zer egin gura ez duzun argi izatea. Nire iritziz, hori da ezinbestekoa herriaren alde lan egiteko orduan. Herri baten alde egitea herritarren alde egitea da, eta herritar horiendako ateak zabalik izatea. Hori gura du Alderdi Popularrak, eskoriatzarrengandik ideia berriak jasotzea, esateko dutena entzutea...

AuB eta herri pla-

taformak legez kanpo utzi dituzte. Zuen iritzia horren gainean?


Urte askoan demokraziari adarra jo edo burla egin diotenei bidea moztu die erabaki horrek. Eskertzekoa da justiziak hartu duen erabakia. Ideia batzuen eta besteen defentsa egiteak badu lekua demokrazian, baina demokraziaren ize- nian hiltzaile talde batek erakundeetan lekua izatea ezinezkoa eta jasanezina da.

Zer berri eta zer onik ekarriko diozue Eskoriatzari?

Lehenengo aldiz alderdi batek ordezkari- tza lortzen duenean aire fresko berria ematen dio Udalaren jarduerari. Batetik, lan egiteko era berria ekarriko dugu, eta bestetik, askatasunaren eta elkarbizitzaren aldeko lana bultzatuko dugu etengabe.

Eskoriatzan zelan hartuko zaituztela uste duzu?

PPk ez du inolako arazorik beste indar demokratikoekin, eta espero dut besteek ere ez dutela gurekin arazorik izango. Askatasuna eta tolerantzia ditugu helmuga.



IU-EB

Xabier Zugasti

ARRASATE / 49 URTE / FUNTZIONARIOA

Javier Zugasti arrasatearra azkeneko bi agintaldietan Ezker Batuak Udalean izan duen ordezkari bakarra izan da. Datozen lau urteotan lanean jarraitzeko gertu dago. Xabierren eta Xabierren alderdiaren nahia, gainera, ordezkari bakarra izateari utzi eta, gutxienez, beste zinegotzi bat gehiago lortzea da.

Zelako taldea osatu duzue datozen udal hauteskundeetarako?

Eskoriatzarrekin osatutako taldea da aurkeztu duguna. Talde orekatua da. Herriko ekimene- tan parte-hartze handia duena eta udal mailan eta herri kudea- ketan eskarmentudunak dituena.

Amaitzean dagoen agintaldian ordezkari bakarra izan duzue Udalean. Zelako emaitzak lortzea espero duzue?

Aurreko bi agintaldietan ordezkari bakarra izan dugu. Hauteskunde- tarara aurkeztu ginen momentutik ordezkari- tza lortu genuen, baina oraingo honetan ordezkari bakarraren hesia apurtu eta helburua, gutxienez, beste ordezkari bat ateratzea dugu. Lanerako ilusioz gainez- ka gatz eta bigarren zinegotzia lortzeko itxarope- na dugu.

AuB eta herri pla- taformak legez kanpo utzi dituztela-eta, zer iritzi duzue?

Horrelako jarrerak eta erabakiak ez datoz bat zuzenbideko estatuare- kin. Demokraziaren kon-

trako erabakia dela deri- tzogu. Legez kanporatze- aren kontra gaude, ez da- eta bidezkoa herritar multzo bat berba barik uztea.


Maiatzaren 26tik aurrera diferentziak alde batera utzi eta egoerari irtenbidea emateko hiz- ketan hasteko ordua dela uste dut; herri mailatik, kalez kale egindako inda- rretik etorri behar du-eta irtenbideak.

Udalan lankide- tzarako gertu zaudete? Beharrezkoa da herria- ren alde ondo lan egi- teko?

Ezinbestekoa. Udale- txera oposizioa egitera joatea edo ardura barik egotea hutsa da. Lanak eta ardurak banatu eta lankidetzan ezinbesteko- ak dira, herriarendako ahalik eta emaitza one- nak lortzeko.

Zein da zuen pro- gramaren ardatz nagusia?

Hiru zutabe nagusi ditugu: herriko kudea- keta egiterakoan esko- riatzarren partizipazioa sendotu, Udalean pribatizatu diren zerbitzuak publiko bihurtu eta poli- tika ezkertiarra bultza- tu, hain zuzen ere.



ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA

Javier Villar

ESKORIATZA / 35 URTE / BASERRITARRA

Lehenengo aldiz aurkeztuko da Javier Villar herri hauteskundeetara; hain zuzen, Eskoriatzako Elizateen Elkartearen izenean. Eskoriatzako auzoen alde lan egiteko ilusioz dator. *Denok abiadura baten* da Villarren eta elkarte osatzen duten zerrendagaien leloa. Abiadura bakarrek herria aldarrikatzen dute.

Denok abiadura baten da Eskoriatzako Eliza- teen Elkarteak auke- ratutako leloa. Zer adierazi gura duzue horrekin?

Mundu mailan edo eta Europa mailan, asko- tan, eta erraztasun han- diz, abiadura desberdi- nez egiten dugu berba. Baina gurean ere egiten diren gauza askok eta askok abiada desberdi- nak izaten dituzte. Herri- tarra ez da askotan horre- taz konturatu ere egiten, baina guk zer dela eta ez dugu, adibidez, zuntz optikoa izateko eskubi- derik? Horixe aldarrika- tzen dugu: abiadura bakarrek herria, alegia.

Zein da duzuen hel- buru nagusia?

Eskoriatzan, kaleko kontuak ahaztu barik, baserriari eragiten dioten proiektuak aurrera eramatea eta sendotzea izango dugu helburu nagusi. Horretarako era- bakiak hatzen diren diren lekuan, hau da, udale- txean egon gura dugu, herri osoaren alde lan egiteko.

Auzoetako herrita- rrek, hortaz, zer dute irabazteko?

Asko. Seigarren aldiz

aurkeztuko da Elizateen Elkarte udal hautes- kundeetara. Beti izan dugu ordezkari bat, gutxienez, Udalean, eta oraingoan ere ordezkari bat, behintzat, ateratzea espero dugu. Azkeneko 20 urteotan baserriarrei galdetzea besterik ez dago zertan irabazi duten jakiteko.

Eta eskoriatzarrei, orokorrean, zer eskai- niko diezue?

Egia esan, neurri handi baten elizateak izango ditugu jomuga nagusi oraingoan ere. Kontuan hartu behar da beste alderdiek, gehien- bat, kalera begira egin- go dituztela eginbeha- rrekoak.

Kontzejupe eta bes- te hainbat herri plata- forma legez kanpo uzte- ari zer deritozue?

Iruzur galanta dela. Helburu jakin batekin, hau da, ordezkari gehia- go lortzeko nahiarekin, PPk eta PSOEek ondo gidatutako maniobra dela uste dugu. Dena dela, nuluak izango diren botoak baliozkotu eta ordezkari horiek lan egi- teko modua aurkitu beharra dagoela uste dugu.

“Garrantzitsuena ideiak argi eta garbi izatea da; hau da, zer egin gura duzun eta zer ez jakitea”

“Udaletxera oposizioa egitera joatea edo ardura barik egotea hutsa da”

“Guk zer dela eta ez dugu, adibidez, zuntz optikoa izateko eskubiderik?”

Sorginek bidaiia polita egin dute aurten ere

AINTZANE GARDOKI

Aurten Oviedo eta Gijon izan dituzte jomuga Sorginak taldeko kideek. Egubakoitz arratsaldean irten eta domeka gaua bitartean, 20 emakumek Asturiasko hainbat leku bisitatu zituzten: "Ezusteko ederra hartu dugu gehienok; izan ere, oso inguru politak bisitatu ditugu. Eguraldi ezin hobea izan dugu. Bestalde, aisialdirako inoiz baino denbora luzeagoa izan dugu, norberak gura izan duena egiteko, eta horrek bidaiia lasaiagoa izatea ekarri du. Oso giro polita izan dugu", esan digute Sorginak taldeko kideek. Dagoeneko hasi dira hurrengo bidaiia prestatzen.



ENKA ZANCADA

Oviedon, Woody Alleni eta amatasunari eskainitako artelanen aurrean ateratako argazkiak bidali dizkigute gatzagarrek.



Herritarrez osatutako aukera

Eugenio Otsoarekin batera datozen lau urteotan udalean herriaren alde lanean jardungo duten beste lau hautagaiek argazkia egin zuten hilaren 11n. Juan Mari Makazaga eta Jon Sasiain aski ezagunak dira herrian, baina beste biak herrira etorri berriak dira: Joserra Pérez eta Nerea Maruri arrasatearrak. Oraingoan kartela eta guzti izan dute, gainera, zerrendagaiek. /A. G.

LABUR

Datorren aste bukaeran zabalduko dute Gatzagako Toki Eder elkarte

Urtarrilaren 11n Garro jauregiak su hartu zuenetik hona Toki Eder elkarte itxita egon da. Langileek dagoeneko amaitu dituzte lanak, baina garbiketa lanak falta dira egiteko. Lanok egiten dituzten bezain azkar elkartearen atek zabaltzeko asmoa dute batzordekideek: "Garbiketa eginaz bat, ateko sarraila aldatu eta giltza berria banatuko dugu bazkideen artean", esan digu Toki Eder elkarteko batzordeko presidente Dorleta Elkorobarrutiak. "Espero dugu beranduen jota datorren aste bukaeran egongo garela zabaltzeko moduan".

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

**ENRIKE
MAZMELA
BOLINAGA**
HORTZ
KLINIKA



Eduardo Gorosari, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

**AZKOAGA
ESTANKOA**

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA



DORLETA

Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20



Juan Carlos Bengoa.
Eskoriatzako Alkatezarako Hautagaila.

Orain Eskoriatza.



Bozkatu eraginkor.



Makina
Erremintaren
Institutua

Instituto de
Máquina
Herramienta

INFORMAZIOA:

Makina Erremintaren Institutua

Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar


Tel.: 943 74 82 65 - 74 4132.

Faxa: 943 74 41 53

Posta elektronikoa: amaia@fmh.es

www.imh.es

Eusko Jaurilaritzako
Lanbide Heziketako Ikastetxe
Publikoen sareko partaidea.



2003-2004 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

ATEAK ZABALIK

maiatzaren 22an eta ekainaren 5ean,
19:00etan



Egun, enpresek langile tekniko
kualifikatuen behar handia daukate

Izena emateko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne



denok abiadura batean.